



“Euskal Herriko paisaiak, herriak eta jendea ezagutzeko bide aparta da

Ehun Mendiak Lehiaketa”

JOSEBA UNDURRAGA, Ehun Mendiak Idazkari Nagusia

Ehun Mendien katalogoak diseinua berri du, eta azken urteetan Anaiarteak gehitu dituen datuekin batera, datorren ostiralean, hilak 16, Euskal Mendizale Federazioaren Galan aurkeztuko da, Gasteizen, Europa Jauregian.

Joseba Undurraga igorreztarra (54 urte, Ganzabal Mendi Taldea) da egun Ehun Mendiak Lehiaketaren arduradun eta bultzatzaile nagusia Anaiartearen Idazkari Nagusia den heinetik. Lehiaketa honen susperraldia ekarri du hark gidatutako lan taldeak: “2014az geroztik joerak irauli genituen, eta Ehun Mendiak lehiaketari biziberritua eman genion prestigioa galduta baitzeukan. Helburu garbi bat genuen: hastapenetako ildoak berreskuratzea, lehiaketa Euskal Herriko paisaiak, herriak eta jendea ezagutzeko bide aparta dela erakustea. Horren aurretik behea jota zegoen, paradoxikoa bada ere jendeak lehiakorregi hartu baitzuen kontua, konpetizio hotz eta handinahi bat bihurtzeraino, metatze hutsari emanaz garrantzia, eta ez bidean ikusten eta ikasten denari”, dio Undurragak.



Duela 103 urte Bilbao Alpino Clubek hasi zituen lehen mendi lehiaketak. Denborarekin, elkarte gehiagok heldu zieten mendiak pilatu eta zerrendak egiteko ohiturei, eta 1950ean Euskal Mendizale Federazioak Ehun Mendien Lehiaketa eta Anaiartea sortu zituen, Euskal Herri mailako lehiaketa. “Katalogo bat sortu zen, araudi batekin, eta aurretik jada lehiaketak beren taldekideekin egiten zituzten mendizaleak aintzat hartu ziren eta hasieratik Anaiartean sartu zituzten”. Gaur egun jada 6.113 historial daude, 4.196 mendizalek sortutakoak.



Alegia, badira hainbat Anaiarteko kide, 100 mendiko zerrenda behin baino gehiagotan osatutakoak. Joseba Undurraga bera 8.a osatzen ari da, eta hiru lagunek 9 dituzte: Javier Atxa (Aloñamendi, Oñati), Josu Lasema (Gasteiz MT) eta Juan Miguel Muñoz (Juventus, Bilbo). Kontuak aterata, gutxienez 40 urtez aritu dira mendiak egiten. “Gu ‘tatzamendi profesionalak’ gara”, dio umorez Undurragak, “apasionatu bat naiz ni, Lehiaketa egiteak Euskal Herria ezagutzera eraman nau, paisaiak, jendeak, igoerak,... Bardeak, Pirinioak... hori da politena”, azpimarratzen du.

Edizio berriak 2016ko zerrendak gaurkotuko ditu, eta han agertuko dira aipatu lagunok. Euskal Mendizale Federazioaren bidez deialdia luzatu zitzaizen mendi taldeei, eta bertaratu zirenen artean araudi berri bat sortu da, gauza batzuk murriztuz, aurreko araudia “malgugia” baitzen, Undurragaren esanetan.

Hiru helburu izan dituzte lan horretan: “katalogoa bultzatzea, prestigioa berriro indartzea, eta mendi taldeak inplikatzeko”. Horien baitan eman dituzte urratsak, Anaiartearen filosofia nagusiarri eutsiz: “Euskal Herria ezagutzeko bide izatea”.

Ehun mendiak

Ehun Mendien Lehiaketa ehun menditara beste horrenbeste igoera egitean datza, eta Euskal Herriko Gailurren Katalogoko zerrendan jasota egon behar dute mendi horiek. Mendizaletasuna sustatzea du xede, bai eta, zaletasun horren bidez, herrialdearen eta herritarren ezagutza osoagoa bideratzea ere, naturaren errespetua eta zaintza sustatuz, bidenabar. Jarduera hori lehiaketako araudia betez garatzen duena Ehun Mendietako Mendizaleen Anaiartean sartuko da, eta diploma bat jasoko du.